Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3246

AGINDUA, 2010eko ekainaren 8koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2011-2013 epealdirako oinarrizko eta/edo aplikatutako ikerketa proiektuak, elkarlanekoak eta giza- eta gizarte-zientzietakoak egiteko laguntzak emateko deialdia egiten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko zientzia- eta teknologia-ahalbideak areagotzeko beharra ikusita, eta ikerketa-taldeak sendotu daitezen, egoki iritzi zaio Sail honek kudeatzen duen oinarrizko ikerketei eta ikerketa aplikatuei buruzko proiektu zehatzak garatzea xede duen programarekin aurrera jarraitzeari.

Euskal Autonomia Erkidegoko zientzia- eta teknologia-sistema sendotu egiten da deialdi honen bidez; izan ere, deialdi honek ezagutzaren garapenari lagundu egiten dio, baita erakunde ezberdinetako taldeen arteko koordinazioari ere. Era berean, beste deialdi batzuekin koordinatuta ere badago; hain zuzen ere, enpresekin lankidetzan teknologia berritzailea garatzera bideratutakoekin, alde batetik, eta ikerketa-taldeen baliabide materialak, giza baliabideak, antolamendua eta funtzionamendua sustatzea xede dutenekin, bestetik.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuan xedatutakoa bete da (2009ko maiatzaren 9ko EHAA).

Halaber, kontuan izan behar dira, batetik, 1991ko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua (1992ko otsailaren 7ko EHAA, 26. zk.), Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura emandako diru-laguntzen bermeen eta itzulketaren jardunbide orokorra arautzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, jardunbidea eta betebeharrak ezartzen dituena, eta bestetik, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuena.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura egindako gastu-espedienteen aurretiko izapideak arautu dituen Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduarekin bat etorriz,

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

3246

ORDEN de 8 de junio de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan ayudas para la realización de Proyectos de Investigación Básica y/o Aplicada, Proyectos en Cooperación y Proyectos en Humanidades y Ciencias Sociales para el periodo 2011-2013.

Vista la necesidad de incrementar el potencial científico y tecnológico de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y con el objeto de afianzar los grupos de investigación, procede continuar con el programa para el desarrollo de proyectos concretos de investigación básica y de investigación aplicada, gestionados por este Departamento.

El Sistema de Ciencia y Tecnología de la Comunidad Autónoma del País Vasco se fortalece con esta convocatoria en la que se favorece el desarrollo de conocimiento, así como la coordinación entre grupos de Organismos diferentes, a la vez que se articula de forma coordinada con otras convocatorias dirigidas por un lado al desarrollo tecnológico innovador en colaboración con empresas, a la potenciación de los recursos materiales y humanos y a la organización y funcionamiento de los grupos de investigación.

En virtud de lo establecido en el Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos (BOPV de 9 de mayo de 2009).

Teniendo en cuenta el Decreto 698/1991 de 17 de diciembre de 1991 (BOPV n.º 26, de 7 de febrero de 1992) por el que se regula el régimen general de garantías y reintegro de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión y el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

Y en base a lo establecido en la Orden de 26 de abril de 2007 de la Consejera de Hacienda y Administración Pública por la que se regula la tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

1.– Diru-laguntzetarako deia egitea, ondoko motetako proiektuak burutzeko:

1. modalitatea:

Oinarrizko ikerketa eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak, erakunde bereko ikerketa-taldeenak.

2. modalitatea:

Erakunde desberdinetako ikertzaileek proiektu berean parte hartzea sustatu nahi da; hots, elkarlaneko proiektuak egitea.

3. modalitatea:

Ikerketa-proiektuak bultzatu nahi dira, Giza eta Gizarte Zientzietakoak, alor horietan hasi berriak diren taldeentzat. Gehienez ere, ikertzaile bakoitzak bi deialditan izan ahal izango du onuradun modalitate honetan, betiere erakunde publikoetako lehiaketa-deialdi bat baino gehiagotan onuradun izan ez bada.

2.– Agindu honen xede diren laguntzetarako 493.783 euro izango dira, guztira, honela banatuta: 2011. ekitaldirako, 228.248 euro; 2012. ekitaldirako, 148.681 euro; eta 2013. ekitaldirako, 116.854 euro. Diru hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-sailaren kontura emango da.

3.– Artikulu honetan esleitutako zenbateko osoa eta/edo urtealdi bakoitzari dagokiona aldatu ahal izango da, guztira eskatutako laguntzen zenbatekoa kontuan hartuta, erakunde kudeatzailearen beste laguntza-programa batzuk gauzatu ondoren agortu gabe gerta litezkeen aurrekontuen arabera eta laguntza horiek ebatzi aurretik. Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako ebazpenaren bidez jakinaraziko da hori.

2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Jarraian adierazten diren erakundeak izan daitezke deialdi honetako modalitatetan ikerketa-proiektuak egiteko laguntzen onuradun:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente kreditatuak, ondoko agente-kategorietakoak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea arautzeko oinarri-arauak gaurkotzen dituen urriaren 1eko 221/2002 Dekretuak bere 2. artikuluan ezarritakoaren arabera:

– Oinarrizko eta bikaintasuneko ikerketa-zentroak.

– Zentroak, departamentuak, sekzioak edo unibertsitateetako beste ikerketa-unitate batzuk, EHUkoak izan ezik.

– Elkarlaneko ikerketa zentroak.

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto de la convocatoria.

1.– Convocar subvenciones para la ejecución de Proyectos de las siguientes modalidades:

Modalidad 1:

Proyectos de Investigación Básica y/o Aplicada de grupos de investigación de un único Organismo.

Modalidad 2:

Proyectos en Cooperación en los que se fomenta la participación de personas investigadoras de diferentes organismos en un mismo proyecto.

Modalidad 3:

Proyectos de Investigación en las áreas de Humanidades y Ciencias Sociales para grupos que se inician en la investigación en estas áreas. Cada persona investigadora se podrá beneficiar de esta modalidad en un máximo de dos convocatorias siempre que no haya participado con éxito en más de una convocatoria competitiva de entidades públicas.

2.– Se destina al objeto de las ayudas a las que se refiere la presente Orden la cantidad de 493.783 euros distribuidos de la siguiente manera: 228.248 euros durante el ejercicio 2011, 148.681 euros durante el ejercicio 2012 y 116.854 euros durante el ejercicio 2013, con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– El importe global, así como los resultantes de su distribución por anualidades, consignados en este artículo podrán ser incrementados teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del organismo gestor y con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 2.– Organismos beneficiarios.

1.– Los Organismos beneficiarios de ayudas para la realización de proyectos de investigación en las modalidades de esta convocatoria pueden ser:

Los Agentes acreditados de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación pertenecientes a las siguientes categorías de agentes de acuerdo al artículo 2 del Decreto 221/2002, de 1 de octubre, por el que se actualizan las bases de regulación de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación:

– Centros de Investigación Básica y de Excelencia.

– Centros, Departamentos, Secciones, Institutos u otras Unidades de Investigación de las Universidades, excepto de la UPV/EHU.

– Centros de Investigación Cooperativa.

– Teknologia-zentroak.

– Garapeneko eta Teknologia Transferentziako Nazioarteko Zentroak.

– Sektoreetako ikerketa-zentroak.

– Ikerketarako erakunde publikoak.

Nolanahi ere, erakunde onuraduntzat hartuko da eskaria egiten duen ikertzaile nagusia bere baitan hartu eta nortasun juridiko propioa duena.

2.– Deialdi honetan onuraduntzat hartutako ikerketa zentroetako ikertzaileen jarduerak baino ez dira diruz lagunduko. Ikerketa-zentroek proiektu koordinatuetan parte hartuko badute, onuradun gisa agertu beharko dute aurreko zerrendan.

3.– Ezingo dira onuradun izan diru-laguntza edo laguntza publikoak hartzea galarazteko zehapen penal edo administratiboak dituztenak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren bat dutenak.

3. artikulua.– Ikerketa taldeen ezaugarriak.

Ikertzaile bakoitzak deialdi honetarako eskabide bakarrean hartu ahal izango du parte, eskatzaile gisa zein ikerketa-talde bateko kide gisa.

Aurreko deialdietako laguntzen onuradun izan diren erakundeetako ikertzaileek, baldin eta aurreko deialdietarako eskabideetan parte hartu badute eta 2010eko abenduaren 30erako euren jarduerak itxi ez badituzte, betebeharren bat egiteke dutelako -emaitzak argitaratzea salbu-, ezingo dute deialdi honetan parte hartu.

Ondokoak izango dira ikerketa-taldea osatzen dutenak:

a) Ikertzaileak. Doktore-maila izan beharko dute. Gutxienez bi izango dira, taldea zuzenduko duen ikertzaile nagusia barne. Ikertzaile nagusiak, nahitaez, diru-laguntza jasoko duen erakundeetako baten partaide izan beharko du.

b) Ikerketa-laguntzaileak. Fakultate batek edo goi mailako eskola tekniko batek emandako lizentziadun, ingeniari edo arkitekto tituluaren jabe izan beharko dute.

Taldea osatzen duten ikertzaileen gutxieneko dedikazioa lanaldi oso bat izango da; hau da, urteko 1.400 ordu. Talde bakoitzeko ikertzaile nagusiaren gutxieneko dedikazioa, berriz, urteko 420 ordu izango da.

4. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak.

1.– Deialdi honetan eska daitezkeen kontzeptuak:

– Centros Tecnológicos.

– Centros Internacionales de Desarrollo y Transferencia Tecnológica.

– Centros Sectoriales de Investigación.

– Organismos Públicos de Investigación.

En todo caso, se entenderá como organismo beneficiario aquel en el que se integra la persona investigadora principal solicitante y que además tiene personalidad jurídica propia.

2.– La convocatoria financiará exclusivamente las actividades de las personas investigadoras pertenecientes a centros de investigación considerados beneficiarios por la convocatoria. Los centros de investigación participantes en los proyectos coordinados deberán haber sido considerados beneficiarios de la convocatoria en la relación precedente.

3.– No podrán concurrir personas que se encuentren sancionadas penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas o se hallen incursas en prohibición legal que les inhabilite para ello.

Artículo 3.– Características de los grupos de investigación.

Cada persona investigadora sólo podrá participar en una solicitud de esta convocatoria, sea como persona solicitante o como miembro de un grupo de investigación.

Las personas investigadoras de organismos beneficiarios de ayudas de convocatorias anteriores que participen en solicitudes de convocatorias anteriores, las cuales a fecha de 30 de diciembre de 2010 no hayan cerrado aún sus actuaciones por tener obligaciones pendientes, excepto la publicación de resultados, no podrán participar en esta convocatoria.

El grupo investigador, estará formado por:

a) Personas investigadoras, que deberán poseer el título que acredite el doctorado. Serán como mínimo dos, incluyendo la persona investigadora principal que dirigirá el grupo y deberán pertenecer necesariamente a alguno de los organismos beneficiarios.

b) Ayudantes de Investigación, que deberán estar en posesión del título de grado o Licenciatura, Ingeniería o Arquitectura por una Facultad o Escuela Técnica Superior.

La dedicación mínima del conjunto de personas investigadoras del/los organismo/s beneficiario/s al proyecto, deberá ser de una Jornada Completa, es decir, 1.400 horas anuales, siendo como mínimo la de la persona investigadora principal de cada grupo de 420 horas anuales.

Artículo 4.– Actividades subvencionables.

1.– Conceptos que se pueden solicitar en la presente convocatoria:

1.1.– Laguntzailea eta bekaduna.

Kolaboratzaile edo bekadun izatea baztertzailea da; horregatik, eskabidean argitu beharko da zein aukeratu nahi den. Deialdia ebatzi denean, laguntza ematea erabaki bada, ezingo da aukera hori aldatu.

a) Laguntzailea: deialdi honetan laguntzaile bati ordaintzeko diru-kopurua finantzatu ahal izango da, hala eskatu bada. Hauek izango dira baldintzak:

Laguntzaileen lanaldi osoagatik, hau da, urteko 1.600 ordugatik, ordaindu beharreko kopurua urteko 15.500 euro izango da. Proiektuari denbora gutxiago eskainiko balitzaio, ordaindu beharreko zenbatekoa proiektuari eskainitako denboraren araberakoa izango litzateke. Laguntzaileak bete beharreko baldintzak:

lizentziaduna, industria-ingeniaria, arkitektoa edo ingeniari teknikoa izatea; deialdian parte hartzen duten erakundeen plantillakoa ez izatea; beketatik edo beste ikerketa-proiektu batzuei emandako dirulaguntzetatik ordainketarik ez jasotzea, ez soldatarik, ez bestelako diru-sarrera publiko edo pribaturik.

Laguntzailea izateko aukera ematen bada -ebazpenean jasoko da hori- laguntzaileari ordaintzeko kopuru bat ere finantzatuko da. Ondoren, ikertzaile nagusiak Zientzia Politikarako Zuzendaritzari proposatuko dio laguntzaile-zereginetan arituko denaren izena, hark onar dezan. Proiektuak dirauen bitartean, zeregin horietan pertsona bera aritzea komeni bada ere, gutxienez urtebetez egon beharko du.

b) Bekaduna:

Deialdi honetan proiektu bat hautatu ahal izango da, eskaera egin bada, 2011-2012 ikasturtean ikertzaileak prestatzeko eta hobetzeko programaren beka-deialdian beka bat esleitzeko aukera izan dezan. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egiten du programa horretarako deia. Proiektuko bekadun izateko izangaiek deialdi horretako B modalitatean parte hartu beharko dute: ikerketa-proiektuei lotutako EAEko ezarpen-zentroetan trebakuntzan diharduten ikertzaileentzako laguntzen programa. Halaber, deialdiaren aginduak ezarritako baldintzak bete beharko dira, eta deialdi horrek bekarako ezarri duen kopuru eta araubideari men egin beharko zaio.

Hiru urteko iraupena duten proiektuek baino ezingo dute eskatu bekaduna edukitzea.

Proiekturen batek beste deialdi batean laguntza jaso badu eta, ondorioz, kofinantziatuta badaude, ezin izango du deialdi honetan bekadunik eskatu.

1.1.– Personal colaborador y becario.

La figura de persona colaboradora y la de persona becaria, son excluyentes, y la solicitud deberá declarar por cuál de ambas opta. Una vez resuelta la convocatoria y, si se determinara positivamente la concesión, no se podrá modificar la opción consignada.

a) Personal Colaborador: la convocatoria podrá financiar, si así se ha solicitado, una cantidad para el pago de una persona colaboradora con las siguientes condiciones:

La cuantía a abonar en concepto de personal colaborador, por una jornada completa, es decir, por 1.600 horas anuales, será de 15.500 euros por anualidad. En el supuesto de que la dedicación al proyecto fuese inferior, el importe a abonar sería proporcional al tiempo de dedicación al mismo.

La persona colaboradora deberá estar en posesión de la titulación de grado o Licenciatura, Ingeniería Industrial, o Arquitectura, no deberá pertenecer a la plantilla de los organismos participantes en la convocatoria, ni podrá recibir percepciones económicas de becas, subvenciones a otros proyectos de investigación, percepciones salariales u otras de carácter público o privado.

Cuando se conceda personal colaborador, extremo que constará en la resolución, se financiará una cantidad para el pago de una persona colaboradora. Posteriormente la persona investigadora principal propondrá para su aceptación por la Dirección de Política Científica el nombre de la persona que corresponda para realizar la función de personal colaborador. Aunque es deseable que la misma persona realice la función durante toda la duración del proyecto, al menos deberá permanecer por un período no inferior a un año.

b) Personal becario:

La convocatoria podrá designar el proyecto, si así lo ha solicitado, para que tenga opción a la adjudicación de una beca en la convocatoria de Becas de Formación y Perfeccionamiento del Personal Investigador del año 2011-2012, que convoca el Departamento de Educación, Universidades e Investigación. Las personas candidatas a personal becario del proyecto deberán participar en la modalidad B de dicha convocatoria: programa de ayudas para personal investigador en formación en centros de aplicación en la CAPV asociadas a proyectos, y cumplir todos los requisitos establecidos en la Orden de convocatoria, sujetándose a las condiciones e importe de la beca y al régimen que en ella se establezca.

Solamente los proyectos que tengan una duración de tres años podrán solicitar personal becario.

Las solicitudes de proyectos que hayan sido financiadas en otra convocatoria, y que, por consiguiente, estén cofinanciadas, no podrán solicitar personal becario en la presente convocatoria.

1.2.– Material inbentariagarria.

Kontzeptu honengatik ordaindu beharreko kopurua ez da 18.000 eurotik gorakoa izango. Proiektuaren kontura erositako material inbentariagarria erakundearen inbentarioan jaso beharko da, eta material horren kostua 18.000 eurotik beherakoa izango da. Espresuki uzten dira deialdi honetatik kanpo altzariak eta instalazioak, baita kudeaketarako ekipamendu informatikoa erostea ere.

1.3.– Material suntsikorra.

Mugarik gabe ordainduko da, baina behar bezala justifikatuta badago eta proiektuaren jardueretan beharrezkoa bada. Bulegoko material orokorra ez da diruz lagunduko (fotokopiak, tonerra, telefono-gastuak, eta abar).

1.4.– Bidaiak.

Proiektuaren jardunak burutu ahal izateko egiten direnak. Proiektuan ateratako emaitzak ezagutzera emateko egiten diren bidaia-gastuak ere onartuko dira, proiektua burutzeko azken urtean egiten badira, eta ikerketa-taldeko pertsona bakarrarentzako baino ez. Proiektu kofinantziatuak badira, deialdian parte hartzen ez duten kanpoko taldeekin koordinatzeko egindako bidaien gastuak ez dira onartuko; izan ere, talde horiek ez dira onuradunak.

1.5.– Bestelako gastuak.

Urteko aurrekontu finantzatuaren % 20, gehienez ere, inbentariagarrien partida kenduta.

Zenbateko horiek gainditzen dituzten gastuak onartu ahal izango dira, behar bezala justifikatzen baldin badira eta ebaluazio teknikoak hori eskatzen badu.

Elkarlanean egiteko proiektuei dagozkien eskabideetan, honako hau joko da: kontzeptuetarako aurreikusi diren mugak parte hartzen duten erakundeetako bakoitzari aplikatzen zaizkio, modu independentean.

2.– Iraupena.

2011ko urtarrilaren 1ean emango zaie hasiera proiektuei eta 1, 2 edo 3 urteko epean burutuko dira, proiektua hasten denetik hasita.

Oinarrizko eta aplikatutako ikerketa proiektuak –1. modalitatea– eta elkarlanean egitekoak –2. modalitatea– urte batetik hiru urtera bitartekoak izan daitezke.

Giza- eta gizarte-zientzietako ikerketa-proiektuek -3. modalitatea- urte 1 edo 2 iraun dezakete.

5. artikulua.– Eskabideak formalizatu eta aurkeztea.

Eskabideak aurkezteko epea agindu hau EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunean zabalduko da, eta 2010eko irailaren 8an itxi. Eskabideak helbide honetara bidali beharko dira:

1.2.– Material Inventariable.

El importe a abonar por este concepto no superará los 18.000 euros anuales. El material inventariable adquirido con cargo al proyecto deberá ser de coste inferior a 18.000 euros y figurará en el inventario del organismo beneficiario. Se excluye explícitamente el mobiliario y las instalaciones, así como la adquisición de equipos informáticos de gestión.

1.3.– Material fungible.

Siempre que sea debidamente justificado y necesario en las actividades del proyecto no habrá limitaciones en esta partida. Se excluye la financiación de material general de oficina tales como fotocopias, tóner, gasto de teléfono, etc.

1.4.– Viajes.

Realizados con motivo del desarrollo de las actividades del proyecto. Se admitirán gastos de viaje con el fin de exponer los resultados obtenidos en el proyecto en el último año de ejecución del proyecto y exclusivamente para una sola persona del grupo investigador. En el caso de proyectos cofinanciados no se admitirán los gastos de viaje correspondientes a la coordinación con grupos externos que no participan en la convocatoria, por no ser beneficiarios.

1.5.– Otros gastos.

Por un valor máximo del 20% del presupuesto anual financiado, exceptuando la partida de inventariable.

Siempre que sea debidamente justificado se podrán admitir gastos que superen estas cifras, si así lo aconseja la evaluación técnica.

En el caso de solicitudes de proyectos en cooperación las limitaciones previstas en los conceptos se considerarán aplicables a cada uno de los organismos participantes de manera independiente.

2.– Duración.

Los proyectos fijarán su inicio el 1 de enero de 2011, en todo caso se realizarán en uno, dos o tres años a contar desde la fecha de inicio del proyecto.

Los proyectos de Investigación Básica y Aplicada, modalidad 1 y los Proyectos en Cooperación, modalidad 2, podrán ser de 1 a 3 años.

Los proyectos de Investigación de Humanidades y Ciencias Sociales, modalidad 3, podrán tener una duración de 1 o 2 años.

Artículo 5.– Formalización y Presentación de Solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el BOPV y finalizará el día 8 de septiembre de 2010, inclusive. Dichas solicitudes deberán remitirse a:

Eusko Jaurlaritza

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Zientzia Politikarako Zuzendaritza

Erreferentzia: Ikerketa-proiektuak

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako bideetako bat baliatuz ere bidal daitezke.

Ikertzaile nagusiak egin beharko du eskabidea, eta hura atxikita dagoen departamentuko zuzendariaren eta azken horren gainetik dagoen erakundearen legezko ordezkariaren oniritzia beharko du.

Elkarlanean egiteko proiektuak badira, erakunde interesatuek eskabide bateratu bakarra aurkeztu beharko dute, proiektu bakoitzeko. Erakunde horiek deialdiaren onuradun izan behar dute eta 2. artikuluko zerrendan agertu behar dute. Parte hartzen duen erakundeetako bat, gainera, proiektuaren ordezkari eta koordinatzailea izango da, proiektuaren garapenaz arduratu eta Administrazioarekiko elkarrizketak eta harremanak bere gain hartzeko. Erakunde koordinatzaileak aurkeztutako eskabidean, beraz, beren beregi jasota utzi beharko da hori. Eskabideak, bestalde, erakunde koordinatzailearen sinaduraz gain, elkarlanean jardungo duten gainerako erakundeena ere eraman beharko du, ikertzaile nagusiaren izenpea barne dela, baita hura atxikita dagoen departamentuko zuzendariaren eta azken horren gainetik dagoen erakundearen legezko ordezkariaren oniritzia ere.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa I. eranskinean ageri dena izango da. Aurkeztu ere, jatorrizkoa aurkeztu beharko da, baita CD euskarriko formatu elektronikoan kopia bat ere.

Eskabideak aurkezteko inprimakiak interesatuen esku egongo dira interneteko helbide honetan: «http://www.hezkuntza.net».

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak xedatutakoa betez, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, zeinen tratamendu eta argitalpenerako partaideek baimena ematen baitute, diru-laguntzen deialdi hau eta deialdiarekin lotutako administrazio-prozedura edo -espedientea kudeatzeko fitxategian txertatuko dira, eta parte hartzen dutenei deialdiaren garapenaren berri emango zaie. Fitxategi horren ardura Zientzia Politikarako Zuzendaritzarena da, eta zuzendaritza horretan (Do-

Gobierno Vasco

Departamento de Educación, Universidades e Investigación

Dirección de Política Científica

Referencia: Proyectos de Investigación

C/ Donostia-San Sebastián, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Por cualquiera de los modos previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La solicitud deberá ser formulada por la persona investigadora principal y contar con el visto bueno de quien dirija el Departamento en el que aquél esté integrado y de la persona representante legal del organismo beneficiario de quien éste último dependa.

Cuando se trate de proyectos en cooperación los organismos interesados, que deberán ser beneficiarios de la convocatoria y relacionados en el artículo 2, habrán de presentar una única solicitud integrada por proyecto. Además, uno de los organismos participantes asumirá la condición de representante coordinador del proyecto, a efectos de responsabilizarse del desarrollo del mismo y de asumir las funciones de interlocución y relación con la Administración. Dicha circunstancia deberá hacerse constar expresamente en la solicitud que el organismo coordinador presente, que deberá estar suscrita, además de por él, por los restantes organismos en cooperación, con la firma del persona investigadora principal, el visto bueno de quien dirija el Departamento en que aquella esté integrada y de la persona representante legal del organismo beneficiario de quien esta última dependa.

La Documentación que acompaña a la solicitud tendrá el contenido que figura en el anexo I y deberá presentarse un original así como una copia completa en formato electrónico en soporte CD.

Un modelo a utilizar para la presentación de solicitudes estará a disposición de las personas interesadas en la dirección de internet: «http://www.hezkuntza.net».

De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y con la Ley 2/2004, de 25 de febrero, Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, los datos personales recogidos en la tramitación de esta convocatoria, cuyo tratamiento y publicación es autorizado por las personas participantes en la misma, serán incluidas en un fichero cuyo objeto será gestionar la presente convocatoria de subvenciones y cualquier otro procedimiento o expediente administrativo relacionado con la misma, así como para informar a las personas concurrentes a dicha

nostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) balia daitezke sartzeko, zuzentzeko, ixteko eta oposizioa egiteko eskubideak.

Deialdi honetan parte hartzen dutenek, halaber, onetsi egiten dute fitxategi honetan jasotako euren datu pertsonalak EAEko beste administrazio publiko batzuei lagatzea, deialdi honen xedearekin bat egiten duten helburuak betetzeko, eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzari baimena ematen diote beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako agirien egiatasuna frogatzeko.

6. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzea, Ikerketa Proiektuen Zerbitzuaren bidez.

7. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetako akatsak zuzentzea.

Baldin eta eskabideak inprimaki edo baliabide normalizatuen bidez aurkezten ez badira, eta horiekin batera aurreko paragrafoetan zerrendatutako agiri guztiak aurkezten ez badira, 10 eguneko epean huts hori zuzendu edo agindutako agiriak aurkez ditzala eskatuko zaio interesatuari. Eta zera adieraziko zaio: horrela egiten ez badu, bere eskabideari uko egiten diola ulertuko dela; aldez aurretik horretarako ebazpena eman beharko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak –4/1999 Legeak aldatuak– 42. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

8. artikulua.– Ebaluazioa eta esleipena.

1.– Ebaluazio Batzordea.

Diru-laguntzak lehiaketa bidez esleituko dira eta proiektuaren iraupen osorako izango dira. Horretarako, ebaluazio-batzordeak egingo du laguntzak esleitzeko proposamena, aurkeztutako eskabideak ebaluatu ondoren.

Ebaluazio-batzordeko kide izango dira: Zientzia Politikarako zuzendaria (bera izango da lehendakaria), Unibertsitateetako zuzendaria, Ikerketa Proiektuen teknikaria, eta zientzia-ebaluazioko aditu bat edo bi. Batzorde horrek proiektu bakoitzari buruzko txostenak eskatu ahalko dizkie kasuan kasuko ezagutza-arloan ospe eta esperientzia aitortua duten ikertzaileei. Batzordeak, halaber, zuzen aplikatuko ditu deialdiko irizpideak, eta gaian adituak diren ebaluatzaileen interpretazioak homogeneizatuko ditu.

Ebaluazio-prozesuan, batzordeak, komenigarritzat jotzen badu, proiektuetan aldaketak sartzea iradoki

convocatoria de su desarrollo. El o la responsable de este fichero es la Dirección de Política Científica Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se podrán ejercer ante la Dirección de Política Científica, dirigiéndose para ello a la calle Donostia-San Sebastián, 1 (01010 Vitoria-Gasteiz).

Asimismo, las personas concurrentes a esta convocatoria dan su consentimiento a la cesión de datos personales contenidos en el fichero a otras administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco para finalidades coincidentes con el objeto de la convocatoria y autorizan a la Dirección de Política Científica a comprobar en otros organismos públicos la veracidad de los documentos presentados.

Artículo 6.– Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Política Científica la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en esta convocatoria, a través del Servicio de Proyectos de Investigación.

Artículo 7.– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

En el caso de presentarse solicitudes que no se hayan cumplimentado en los impresos o medios normalizados al efecto y/o no hubieran acompañado toda la documentación relacionada en los apartados anteriores, se requerirá a la persona interesada para que, en el plazo de 10 días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido o desistida en su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999.

Artículo 8.– Evaluación y adjudicación.

1.– Comisión de Evaluación.

Las subvenciones se concederán mediante el procedimiento de concurso y corresponderán a la duración completa del proyecto. A estos efectos, la propuesta de adjudicación de las ayudas la realizará la Comisión de Evaluación mediante la evaluación de las solicitudes presentadas.

La Comisión de Evaluación estará constituida por la Directora de Política Científica, que la presidirá, por la Directora de Universidades, el Técnico de Programas de Investigación y uno o dos expertos en evaluación científica. Dicha Comisión podrá solicitar informes sobre cada proyecto a personas investigadoras de reconocido prestigio y experiencia evaluadora en el área de conocimiento correspondiente: la comisión realizará una correcta aplicación de los criterios de la convocatoria y homogeneizará la interpretación de las personas evaluadoras expertas en la materia.

En el proceso de evaluación, si así se estima conveniente, la Comisión de Evaluación podrá sugerir a

ahal izango die eskatzaileei, proiektuak programa honen helburuetara hobeto egokitzeko asmoz.

2.– Eskaerak ebaluatu, aukeratu eta lehentasunen arabera antolatzeko irizpideak.

Diru-laguntzak emateko ebazpen-proposamena prestatu ahal izateko, ebaluazio-batzordeak jarraian aipatzen diren irizpideak izango ditu kontuan, eskabideak ebaluatu, aukeratu eta lehentasunen arabera ordenatu ahal izateko:

2.1.– 1. modalitateko proiektuentzat; 100 puntu eman daitezke guztira:

las personas solicitantes la introducción de modificaciones en los proyectos para conseguir una mejor adaptación de los mismos a los objetivos de este programa.

2.– Criterios de evaluación, selección y ordenación por prioridad de las solicitudes.

Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las subvenciones concedidas la Comisión de Evaluación tendrá en cuenta los siguientes criterios que aplicará en la evaluación, selección y ordenación por prioridad de las solicitudes:

2.1.– Para los proyectos de la Modalidad 1, hasta un total de 100 puntos:

Irizpideak:	Puntuak
- Proiektuaren interes zientifikoa eta teknologikoa: Proposamenaren interes zientifikoa, ekonomikoa eta soziala, proposamenaren originaltasuna eta izaera berritzailea, egokitzapen metodologikoa eta teknika instrumentalak.	20
- Proiektuaren kudeaketa-plana.	15
- Ikertzaileen kalitate zientifikoa, baita curriculum vitae-an adierazitako argitalpen zientifikoena eta patenteena ere.	15
- Ikertzaileek ikertu beharreko gaian duten eskarmentua.	10
- Lehenagoko deialdietan finantzatutako azken 5 proiektuetan lortutako errendimendu eta zientzia-emankortasunaren maila.	15
- Aurreikusitako finantza-baliabideak ezarritako helburuetara egokitzea.	5
- Beste erakunde batek finantzaketa-emaile gisa jokatzea.	10
- Ikertzaile-taldea diziplina anitzekoa izatea.	10
Guztira	100

Criterios:	*Puntos*
- Cualificación científico-tecnológica del proyecto: interés científico, económico y social, originalidad y carácter innovador de la propuesta, adecuación de la metodología y técnicas instrumentales.	*20*
- Plan de gestión del proyecto.	*15*
- Calidad científica de las personas investigadoras, así como de sus publicaciones científicas y patentes expresadas en el Curriculum Vitae.	*15*
- Experiencia previa de las persona investigadoras en el tema objeto de la investigación.	*10*
- Nivel de rendimiento y productividad científica logrado en los 5 últimos proyectos financiados en convocatorias anteriores.	*15*
- Adecuación de los recursos financieros previstos a los objetivos propuestos.	*5*
- Participación de otro organismo como agente financiador.	*10*

Criterios:	*Puntos*
- Carácter multidisciplinar del grupo investigador.	*10*
Total	*100*

2.2.– 2. modalitateko proiektuetarako, 100 puntu eman daitezke guztira:

2.2.– Para los proyectos de la Modalidad 2, hasta un total de 100 puntos:

Irizpideak:	Puntuak
- Proiektuaren kalitatea: Proposamenaren interes zientifikoa, ekonomikoa eta soziala, originaltasuna eta izaera berritzailea, egokitzapen metodologikoa eta teknika instrumentalak.	20
- Proiektuaren kudeaketa-plana.	15
- Ikertzaileen kalitate zientifikoa, baita curriculum vitae-an adierazitako argitalpen zientifikoena eta patenteena ere.	10
- Ikertzaileek gaian duten eskarmentua.	10
- Lehenagoko deialdietan finantzatutako azken 5 proiektuetan lortutako errendimendu eta zientzia-emankortasunaren maila.	15
- Aurreikusitako finantza-baliabideak ezarritako helburuetara egokitzea.	5
- Beste erakunde batek finantzaketa-emaile gisa jokatzea.	10
- Taldeen ezagupenak noraino integratzen eta komunikatzen diren helburu komunetan eta proiektuen emaitzetan, eta taldeen artikulazio-maila.	15
Guztira	100

Criterios:	*Puntos*
- Cualificación del proyecto: interés científico, económico y social, originalidad y carácter innovador de la propuesta, adecuación de la metodología y técnicas instrumentales.	*20*
- Plan de gestión del proyecto.	*15*
- Calidad científica de las persona investigadoras, así como de sus publicaciones científicas y patentes expresadas en el Curriculum Vitae.	*10*
- Experiencia previa de las personas investigadoras en el tema.	*10*
- El nivel de rendimiento y productividad científica logrado en los 5 últimos proyectos financiados en convocatorias anteriores.	*15*
- Adecuación de los recursos financieros previstos a los objetivos propuestos.	*5*
- Participación de otro organismo como agente financiador.	*10*
- Nivel de integración y comunicación de los conocimientos de los grupos en los objetivos comunes y en los resultados del proyecto y grado de articulación de los grupos.	*15*
Total	*100*

2.3.– 3. modalitateko proiektuetarako, 100 puntu eman daitezke guztira:

Irizpideak:	Puntuak
- Proiektuen kalitate zientifikoa: interes zientifikoa, helburuen originaltasuna eta izaera berritzailea, hipotesiaren bideragarritasuna.	20
- Gaiaren egoerari buruzko ezagutza, aurrekariena eta dauden aukeren planteamendua.	20
- Metodologia berritzailea eta tekniken egokitasuna.	10
- Proiektuaren kudeaketa-plana.	20
- Ikertzaileen kalitate zientifikoa, baita curriculum vitae-an adierazitako argitalpen zientifikoena eta patenteena ere.	10
- Ikertzaileek gaian duten eskarmentua.	10
- Aurreikusitako finantza-baliabideak ezarritako helburuetara egokitzea.	10
Guztira	100

2.3.– Para los proyectos de la Modalidad 3, hasta un total de 100 puntos:

Criterios:	*Puntos*
- Calidad científica del proyecto: interés científico, originalidad y carácter innovador de los objetivos, Viabilidad de la hipótesis.	*20*
- Conocimiento del estado de la cuestión, de los antecedentes y planteamiento de las alternativas existentes.	*20*
- Metodología innovadora y adecuación de las técnicas.	*10*
- Plan de gestión del proyecto.	*20*
- Calidad científica de las personas investigadoras, así como de sus publicaciones científicas y patentes expresadas en el Curriculum Vitae.	*10*
- Experiencia previa de las personas investigadoras en el tema.	*10*
- Adecuación de los recursos financieros previstos a los objetivos propuestos.	*10*
Total	*100*

2.4.– Ebaluazio-sistema homogeneizatu eta irizpideak aplikatzerakoan objektibotasun handiagoa lortze aldera, deialdiaren II. eranskinean adierazi dira irizpideak zehatzago baloratzeko aldeen xehetasunak, ebaluatzaileei euren lanean laguntzeko eta ebaluazio-prozedura gardenago izan dadin.

3.– Laguntzak esleitzeko prozedura.

Ebaluatutako eskabideen arteko lehentasun-ordena ezarriko da, modalitate bakoitzerako, 8.2 artikuluan ageri diren ebaluazio-irizpideen arabera. Irizpide horiei jarraituz, balorazio onena (50 puntutik gora)

2.4.– Con la finalidad de homogeneizar el sistema de evaluación y lograr una mayor objetividad en la aplicación de los criterios, el anexo II a la convocatoria manifiesta el detalle de los aspectos de valoración pormenorizada de los criterios como apoyo a la acción de las diferentes personas evaluadoras así como en orden a una mayor transparencia del procedimiento de evaluación.

3.– Procedimiento de adjudicación de las ayudas.

Se establecerá un orden de prioridad de las solicitudes evaluadas, para cada una de las modalidades, atendiendo a los criterios de evaluación que figuran en el artículo 8.2, adjudicándose sólo a aquellos que

lortzen dutenei bakarrik esleituko zaie diru-laguntza, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan xede horretarako ezarrita dagoen diru-zenbatekoa agortu artean, edo, indarrean dagoen legediaren arabera aurrekontuetan aldaketak egiten direnean, hasierako zenbateko hori gaurkotzetik ateratzen dena agortu artean. Aukeratutako ikerketa proiektu bakoitzean eskatutakoaren % 100 hartu ahal izango dute esleipenek.

Onartutako aurrekontuak kontuan hartuko ditu 4. artikuluan ezarritako kontzeptuak, eta ikertzaile taldeek planteatu eta behar bezala kreditatutako beharrak eta adituek emandako aholkuak kontuan hartuta finkatuko da. Urteka banatuko da diru-laguntzaren guztirako zenbatekoa, aipatu diren beharren eta onartutako lan-planen arabera.

9. artikulua.– Ebazpena.

1.– Ebaluazio Batzordeak Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari proposamena aurkeztuko dio, eta honek esleitu edo ukatu egingo ditu, ebazpen bakar eta arrazoitu baten bidez. Ebazpen horren berri interesdunei banan-banan emango zaie. Ebazpen horren berri banan-banan emango zaie interesatuei, eta EHAAn ere argitaratuko da, denek izan dezaten horren berri.

2.– Onartzen den proiektu bakoitzari buruz datu hauek jaso beharko dira ebazpenean:

– Zein modalitateri lotzen zaion.

– Ikertzaile nagusiaren izena.

– Erakunde onuraduna.

– Ikerketaren izenburua.

– Proiektua egingo den urte bakoitzerako esleitutako zenbatekoa.

– Laguntzailea edo bekaduna onartu zaion: lehenari finantzaketa dagokio, eta bigarrenari, berriz, aukera, deialdiaren 4.1.a artikuluaren baldintzen arabera.

Elkarlanean egiteko proiektuak badira, parte hartzen duen erakunde onuradun bakoitzari dagokion finantzaketa ere jasoko da.

3.– Ebazpen horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera, hilabeteko epean. Deialdiaren argitalpena amaitu eta 6 hilabeteren buruan ebazpenik eman edo jakinarazten ez bada, eskabideak erantzun ezagatik ezetsi direla uler daiteke.

10. artikulua.– Bateragarritasuna/bateraezintasuna beste diru-laguntza eta laguntza batzuekin.

